

DROGA MENDEKOTASUNEI BURUZKO IKERKETA **PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN 2016ko** **DEIALDIA**

Laguntzen ezaugarriak:

Ikerketa proiektuek oinarrizkoa, klinikoa, soziala, epidemiologikoa, osasun publikoari buruzkoa edo osasun zerbitzuei buruzkoa beharko dute izan eta droga mendekotasunen alderdi desberdinak landu beharko dituzte. Proiektuen emaitzek aurrerapauso bat ekarri beharko dute mendekotasunen esparruan eta erabilgarriak izan beharko dute arlo horretako produktuak, prozesuak eta zerbitzuak sortzeko edo hobetzeko garaian.

Proiektuak banakakoak edo koordinatuak izan daitezke. Proiektu koordinatuek bi azpi-proiektu edo gehiago hartuko dituzte barne eta bi ikerketa talde edo gehiagoren parte hartzea izango dute. Ikerketa talde horiek erakunde desberdinetakoak edo erakunde bereko sail desberdinetakoak izango dira. Azpi-proiektu bakoitzak ikertzaile nagusi bat izango du, eta hori arduratuko da azpi-proiekturako proposatutako jardueren garapenez.

Lehentasunezko ikerketa arloak:

1. Alkoholaren, kanabisaren eta antzekoen gehiegizko kontsumoaren prebentzio selektiboa eta aholku erakoa, nagusiki adingabeei zuzendua.
2. Mendekotasunen gizarte kostua.
3. Prozesu terapeutikoaren kalitatearen eta emaitzen hobekuntza.
4. Gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko estrategiak.
5. Presondegia inguruneetako jarduketak.
6. Lan arloko droga mendekotasunaren prebentzioa eta esku-hartzea.

Iraupena:

Ikerketa proiektuek urte 1, 2 edo 3 urteko iraupena izan dezakete.

Dokumentazioa:

Dokumentu orokorrak (eskaera guztientzat):

DOKUMENTUA	ARDURADUNA
I. eranskina: Eskaria	Dokumentu honek errektoreordearen sinadura behar du eta Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzari eskatu beharko zaio.
II. eranskina: Memoria zientifikoa eta ekonomikoa	IN eskatzailea
III. eranskina: Datuak kontsultatzeko baimena	Dokumentu honek errektoreordearen sinadura behar du eta Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzari eskatu beharko zaio.
IV. eranskina: Erantzukizun adierazpena	Dokumentu honek errektoreordearen sinadura behar du eta Ikerkuntzaren

	arloko errektoreordetzari eskatu beharko zaio.
Ikertzaile nagusiaren eta taldeko kide guztien CVa	IN eskatzailea
UPV/EHUko Ikerketa Batzordearen txostena	Dokumentu honek errektoreordearen sinadura behar du eta Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzari eskatu beharko zaio.
Lege ordezkartzaren akreditazioa	Dokumentu hau Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzari eskatu beharko zaio.
Identifikazio fiskaleko zenbakiaren kopia konpultsatua	Dokumentu hau Ikerkuntzaren arloko errektoreordetzari eskatu beharko zaio.

GARRANTZITSUA: I. eta II. eranskinak ezin izango dira zuzentzeko epean aurkeztu. Beraz, dokumentu horiek epearen barnean aurkezten ez dituzten eskaerak baztertu egingo dira.

Dokumentu espezifikoak (proiektu bakoitzaren araberakoak):
Gomendagarria da deialdiaren hirugarren artikulua kontsultatzea.

***GARRANTZITSUA.** Dokumenturen batek Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura behar badu, ikertzaile nagusiak posta elektronikoko bidez eskatu beharko du, helbide honetara behar besteko aurrekotasunaz idatzita: convocatorias.dgi@ehu.eus.

Ikertzaile nagusiek bete beharreko baldintzak:

UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.

Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:

UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.

UPV/EHUtik kanpoko pertsonala:

Laneko planean beste inon ez dira agertuko.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

Gastu hautagarriak:

- Material inbentariagarria
- Ikertzaileen eta doktorego aurreko bekadunen kontratazioa
- Prestakuntza egonaldiak AEBn
- Proiektua gauzatzeko eta hedatzeko bidaietako gastuak
- Taldeko kideek ekitaldietan inskribatzeko gastuak

Eskarrietan zeharkako gastuetarako % 15a gehitu beharko da.

Eskaerak aurkezteko epea eta era:

ZUZENKETA: Eskariak aurkeztu ahal izateko epea 2016ko urriaren 1ean amaituko da.

UPV/EHUn egin beharreko tramitea:

UPV/EHUK paperezko euskarrian aurkeztuko dituzte eskariak

<p>ZUZENKETA: (Abuztua baliogabetzat jo dutelako) 2016ko irailaren 16a (hau ere barne)</p>	<p>I. eranskina igorri, proposatutako pertsonalaren zerrendarekin, ikerkuntzaren arloko errektoreordetzak berrazter dezan. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.es helbide elektronikora bidali beharko da, gaiaren arloan "Mendekotasunen deialdia" idatzita.</p> <p>Dokumentua ezinbestean bidali behar da ikerkuntzaren arloko errektoreordetzak deialdi honetarako eman beharko duen dokumentazioa eskuratu ahal izateko. <u>Ikertzaile nagusiak adierazi beharko du, eskari guztietarako dokumentu amankomunez gain, dokumentazio espezifikorik beharko duen, deialdiaren hirugarren artikuluan jasotakoari jarraiki.</u></p>
<p>ZUZENKETA: 2016ko irailaren 29an, 12:00etan.</p>	<p>Dokumentazio osoa ikerkuntzaren arloko errektoreordetzaren deialdien atalean jaso (errektoregoaren eraikina, Leioa). Epearen barruan iritsiko ez diren eskaerak ikertzaile nagusiak berak aurkeztu ahal izango du. Honelakoetan, eskaria behin aurkeztu ondoren, dokumentazio osoa igorri beharko da convocatorias.dgi@ehu.es helbide elektronikora artxiboan gorde dadin.</p>
<p>2016ko urriaren 1a</p>	<p>ESKARIAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA.</p>

UPV/EHUren datuak:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena Auzoa, z. g.
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Ordezkarri legala: Fernando Plazaola Muguruza
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea

Harremanetarako:

IKERKETAREN ERREKTOREORDETZA	ARLOKO	OSASUN MINISTERIOA
94 601 80 08 convocatorias.dgi@ehu.es		91 822 60 70 pndinvestigacion@msssi.es

Informazio gehiago:

<http://www.pnsd.msssi.gob.es/delegacionGobiernoPNSD/convocatoriaSubvenciones/ongs/proyeclnvestig.htm>